

# Getxo >MEETING<



**Otsailak 27**

## **Zure enpresa metafora baten moduan marraztuta**

“Ez nuen uste marrazketa nire enpresa hobeto ulertzeko bidea izan zitekeenik”

Hona laburpena: Errealitatera gerturatu eta hobeto ulertzeko, batzuetan urrundu egin behar zara. Baina ez datza oporrak hartzean (nahiz eta lagundu dezakeen, noski), baizik eta soilik pentsatzeko erreminta aldatzean. Benetan eraginkorra izan daiteke.

Lengoaia bisuala eta metafora bisualen erabilera erabilgarria izan daiteke honako kasu hauetan:

- Albo-pentsamendua deritzon hori erabiltzeko konplexuak eta lantzeko zailak izan ohi diren arazoei aurre egiteko.
- Enpresan egunero topatzen dituzun eta beste ikuspuntu batetik fokatzeko zailak izan ohi diren korapiloak askatzeko.
- Zure alderdi arrazionala intuizioarekin konektatzeko.

Metafora bisuala: Zure enpresa marrazten baduzu naturako elementu bat bailitzan (sagar bat, esaterako), askoz ere errazago suertatuko zaizu honako hauei buruz hausnartzen hastea:

Zeintzuk diren sagarra osasuntsu egotea ahalbidetzen duten faktoreak (eta gero imajinatu ea zerk irudikatzen dituen zure negozioa elikatzen duten elementu horiek)

Zeintzuk diren sagar horren kalitatea arriskuan jartzen duten faktoreak, eta horiek marraztu (eta imajinatu, adibidez, zerk irudikatuko lukeen sagarreko ar tipiko hori).

Metafora gisa balio dezakeen edozer gauzak erraztu egiten du gertatzen dena eta gerta daitekeena ulertzea; izan ere, egiteko beste modu bat erabiltzen hasten zara, eta ez horrenbeste arrazoitzeko era klasikoa. *Pentsatzeari* uzten diozu eta *ikusten* hasten zara.